



GEROA
B G A E

2003^{ko}
Kudeaketa txostena

2003ko Kudeaketa txostena

Zortzi urte pasa dira GEROA BGAE eratu zenetik, eta Entitatea bere helburua sendotzen ari da; langile bazkideen pentsioak osatzea, talde eta elkartasuneko izaerarekin.

Aurreko ekitaldian bezala, ondoko dokumentu honen baitartez 2003. urtean izan diren gertakaririk adierazgarrienak aurkezten dira zuen ezagupenerako.

Azken hiru urtetan ez bezala, mundu mailako ekonomia egoeran hobekuntza nabaritu da nahiz eta gora-beherak izan. Burtsa-merkatuek apirilaz geroztik, alde batetik enpresarien etekinen hobekuntza islatu dute, eta bestetik, arrisku geopolitikoak murriztu dira, baita aurreko ekitaldian agertu ziren beste mota batzuetako ziurgabetasunak ere. Egoera honetan errentagarritasunak nabarmen hobetu dira.

Zoritxarrez, ezin dugu gauza bera esan aurreikuspen arloko lege aurrerapenari dago-

kionez, ezta Entitateko sektore garrantzitsuenen hitzarmenen sinaduren ondorioz ekarpenen ehunekoaren gehikuntzari dagokionez.

2003. ekitaldian bi jarduera-sektore barneratu dira, Errepidean zeharreko merkantzien garraioa, eta Gipuzkoako lokalak, ikuskizunak eta kirola. Era berean, erakundearen barneraturiko hamazazpi sektoreetatik lauk baino ez dute beren ekarpenaren ehunekoa gehitu: Zeramika, Beira, Garbiketak eta Hornitegiak. Gipuzkoan sektoreko hitzarmenik ez duten ondoko enpresek ere areagotu egin dituzte beren ekarpenen ehunekoak: Herri Irratia eta Zahor. Honetaz gain, beste bost enpresa berri barneratu dira Erakundearen. Ondoko taulan erakundearen parte hartzen duten sektoreak eta ekarpenen ehunekoak adierazten dira:

Sektoreak	2003ko guztizko ekarpenaren %
Metalgintza	%3,5 aldaketarik gabe
Zeramika	%3,5 %0,5eko gehikuntza
Zuraren industria	%2,0 aldaketarik gabe
Iragan-arloa	%3,0 aldaketarik gabe
Okindegiak	%1,2 aldaketarik gabe
Beira	%3,5 %1eko gehikuntza
Eraikuntza	%2,5 aldaketarik gabe
Papera eta kartoia	%1,2 aldaketarik gabe
Altzariak eta osagarriak	%1,0 aldaketarik gabe
Ehun-arloko merkataritza	%1,6 aldaketarik gabe

Sektoreak	2003ko guztizko ekarpenaren %
Larru-arloko merkataritza	%1,6 aldaketarik gabe
Metal-arloko merkataritza	%2,0 aldaketarik gabe
Garbiketa	%1,5 %1eko gehikuntza
Hornitegiak	%2,0 %0,5eko gehikuntza
Fruta eta Barazkien	
Handizkariak	%1,0 aldaketarik gabe
Merkantzien garraioa	%1,0 urte honetan berria
Lokalak, Ikuskizunak eta Kirola	%0,5 urte honetan berria

2003. urtean zehar GEROA BGAE erakundera 129.000 langile bazkide baino gehiagok egin dituzte ekarpenak, langile hauek 9.072 enpresetakoak ziren.

Ekarpenak hazi egin dira ekitaldian, sektore eta enpresa berrien sarreraren ondorioz, zenbait aportazio portzentaien eta kontingentzia arruntan oinarriren igoeraren ondorioz. 2002an 54,62 milioi euroko kuotak izatetik, 2003an 58,27 milioi eurokoak izatera pasa dira, %6,68ko hazkundearekin.

GEROA BGAE erakundearen ondarea ekitaldiaren amaieran 312,78 milioi eurokoa izan da eta zenbateko hau langileen artean banatzen da, ekarpenen proportzioaren arabera, aurreko ekitaldiarekiko %31,89 ko hazkundera lortuaz.

Ekitaldiko funtzionamendu eta amortizazio gastuak, langileek onartutakoak, batzabeste kudeatutako ondarearen gaineko %0,30an aurkitzen da, eta geratzen diren gastu arruntak, Mutual Fondoan kontabilizaturiko zenbatekoak emandako interesekin konpentsatzen dira.

EGOERA-BALANTZEA

2003ko abenduaren 31n, milioi eurotan.

AKTIBOA

Ibilgetua	737
Inbertsioak	331.209
Hainbat zordun	388
Diruzaintza	2.756
AKTIBOA GUZTIRA	335.090

PASIBOA

Fondo propioak	297.591
2003 ekitaldiko irabaziak	24.518
Arrisku Prest. Hornidura	8.558
Hainbat hartzekodun	4.423
PASIBOA GUZTIRA	335.090

GALDU-IRABAZIEN KONTUA

2003ko abenduaren 31n, milioi eurotan.

GASTUAK

Prestazioak, berrasegurua	5.448
Administrazio-gastuak	1.078
Inbertsio-gastuak	489
Hainbat eskubide bateratu	52.822

Ekitaldiko mozkina **24.518**


ZORRAK GUZTIRA 84.355

SARRERAK


Ekitaldiko kuotak	58.272
Inbertsioen sarrerak	25.572
Arrisku Horn. soberakina.	511

HARTZEKOAK GUZTIRA 84.355


MOZKINEN BILAKAERA



2003 LIKIDAZIO- BALIOAREN BILAKAERA



ONDAREAREN BILAKAERA



Inbertsio-zorroaren banaketa (%)

2003.urtean burtsa merkatuen joera ezkorra amaitu da. Munduko indizeak aurreko galerak errekuperatzen ari dira, aurrerapen esanguratsuekin: ekitaldi honetan Ibex indizea %28,17an igo zen, Eurostoxxa %15,68an, eta Nasdaq %49,12an. Era berean, errenta finkoan munduko Bankuek interes-tasen erlaxazio politika mantendu dute, mundu mailan hasi berria den hazkunde ekonomikoa bultzatu eta sendotzeko asmoz. Ekainean, Ameriketako Erreserba Federalak bere interes-tasak % 1 arte jeistea erabaki zuen eta European Banku Zentralak, erreferentzi-tasak %2an finkatu zituen.

Testuinguru honetan, interes-tasen beharakadak zor eta kreditu publikoko merkatuak mesedetu dituzte, urte osoan zehar errenta finko pribatuko

jaulkitzaileen diferentzialen beharakada esanguratsua bultzatuz. Honez gain, Geroako ondarearen kudeaketa aldatuz joan da urtean zehar, errenta aldakorrean inbertsioak gehituaz eta errenta finkoko portzentaia gutxituz; batez ere, epe luzera. Geroako ondarearen gehiengoa errenta finkoan inbertiturik aurkitzen da 2003.ekitaldi amaieran, %81,97ko portzentaian, aurreko ekitaldiko %89,21aren aurrean. Errenta aldakorra %15,85era hazten da, 2002koa bikoiztuaz, Erakundeko errendimendua mesedetuz, %9,2ko urteko errentabilitatea lortu delarik.

Azkenik, Erakundeak bere jarrera mantentzen du inbertsio zuzenean, lan arriskuen aurrikuspenerako simulagailuak ekoizten dituen enpresa batean partaidetza berria eskuratuz.

AKTIBO-MOTA

ZORROAREN GUTTIZKOAREN GAINKO %

Epe luzerako errenta finkoa	
Epe laburrerako aktiboak	
Errenta aldakorra	
Zuzeneko inbertsioa	
Likidezia	


%66,13
%14,99
%15,85
%2,18
%0,85

Prestazioak

2003. urtean 1.325 prestazio egin dira, 649 erretiroaren ondoriozkoak izan dira, 333 baliaezintasun iraunkor erabatekoaren ondoriozkoak, 144 baliaezintasun iraunkor absolutuaren ondoriozkoak, 8 baliaezintasun handiaren ondoriozkoak, 153 heriotzaren ondoriozkoak, 19

Atzerapenak izenpearen barne (aurreko urtetako prestazioak) eta 19 lan-istripuen ondoriozkoak langilearen balieztasun handia edo heriotza sortu dutenak. Prestazio hauen zenbateko osoa 7,89 milioi eurokoa izan da.

2003 PRESTAZIOEN ONURADUNAK



Baliaezintasunen eta heriotzen ondorioz ordaindutako prestazioetatik 486 prestaziok estaldura osagarria izan dute, guztira 5,70 milioi eurokoa, 337 kapital gisa ordaindu dira eta gainerako 149 errenta gisa ordaindu dira. Errenta hauei aurre giteko GRM/F- 95 taula

aktuarialak erabili dira eta interes-tasa teknikoa %4koa izan da. Kontzeptu honen ondorioz bere egindako konpromisoak 6,73 milioi eurokoak dira eta Biharko, Pentsio Fondoen eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen Aholkularitza, SAK baloratu ditu.



Gertakizun aipagarriak

Erakundeko Mutual Fondoa 4 milioi eurotan hazi da, guztira 15,6 milioi eurotakoan izanik, ondorioz, Geroa Euskadiko Aurrikuspen Erakundeen artean kaudimen gehienekoa izanik.

Lehenengoz, 2004ko urtarriletik eta Erakundeko Gobernu Organuen adostasunez, biziarteko errenta moduan jasotzen diren prestazioak %3,5ean birbaloratu dira, hartutako erabakien eta lortutako errentabilitatearen ondorioz.

